

innobasque

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Berrikuntzaren Innobasque Txostenaren Laburpen Exekutiboa

2020

Berrikuntzan oinarrituta
suspertzeko gakoak

Dokumentuaren helburuak eta aurrekariak

Berrikuntzaren Innobasque Txostenaren 2020ko edizioa enpresei, botere publikoei, zientzia eta teknologia arloko eragileei eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema osatzen duten askotariko erakundeei testuinguru honetan erabakiak hartzen laguntzeko da.

Hiru helburu ditu:



Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemak pandemiaren aurretik zuen abiapuntu-egoera ezagutzea.



Aurreko krisialditik ikasgaiak atera COVID-19ak sortutako krisiari aurre egiteko.



Jakitea nola hautematen duten Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako adituek Euskadin berrikuntzak epe laburrera eta ertainera izango duen etorkizuna.

Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Innobasquek, 2020rako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak ezarritako ebaluazio-funtzioari lotuta, Berrikuntzaren Innobasque Txostena argitaratzen du bi urtean behin.

Nazioarteko hainbat estatistikatan oinarritutako analisi konparatibo bat da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren errealitateari zenbait angelutatik begiratzen zaio eta Euskadiko berrikuntzari buruzko erreferentziazko txostena bihurtu da.

Txostenean jasota dago Basque Innovation Perception (BIP) delakoaren hirugarren edizioa. Azterlan horrek jasotzen du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako 250 profesional inguruk Euskadin berrikuntzak duen eta etorkizunean izango duen egoerari buruz duten pertzepzioa. Innobasqueko adituen talde hori bazkide diren erakundeen ekarpenari esker dago eratuta. Analisi kualitatibo bat da eta ohiko analisi estatistikoak osatzeko helburua du.

Hitzaurrea

Euskadiren historia berrienean aurrekaririk ez duen osasun-krisia bizitzen ari gara, eta horrek ekarri duen krisi sozioekonomikoa ez dago aurretik izandakoekin alderatzerik, duen azkartasunagatik eta sakontasunagatik. Urteetan hazkundera izan ondoren, Eusko Jaurlaritzaren kalkuluen arabera, Barne Produktu Gordinaren (BPG) jaitsiera % 10,1ekoa izango da 2020an. Gainera, koronabirusaren pandemiak zenbait trantsizio sozioekonomiko bizkortu ditu, besteak beste digitalizazioa, eta horiek eraldaketa sakonak ekarriko dituzte uste baino epe laburragoan.

Testuinguru berri honek osasun arloan ikerketak egiteko gaitasunaren beharra utzi du agerian, hala, COVID-19k zer nolako jokabidea duen ulertzeko, eta jakiteko zer neurri eta tratamendu diren egokienak aurre egiteko edo sendabide edo txertoa bilatzeko.

Ekonomiaren arloan, inpaktua ahalik eta gehien txikitzen saiatzeko hartutako lehen talka-neurrien ondoren, erresistentziaren fasetik suspertzearenera igarotzen ari gara. Prozesu hori gidatzeko oinarriak giltzarri izango dira epe labur eta, batez bere, luzerako gure etorkizuna zehazteko. Gure gizarteak indartuta atera nahi badu, talka-neurriak eta epe luzeragoko neurriak uztartzeko gai diren estrategia eskuin-ezkertiarrak garatu beharko dira. Horretarako, berrikuntzak izan behar du, I+G katalizatzailetzat hartuta,

estrategia horien oinarrietako bat. Produktu eta zerbitzu berriak abian jartzea, merkatuko nitxo berrietara iristea eta lana antolatzeko modu berriak izango dira balio-kate berrietan gure posizionamendua eraikitzeko gakoak.

Euskal gizartearen ongizate eta osasunari eta gure enpresen lehiakortasunari oinarri sendoak jarri nahi badizkiegu, Euskadik ezin ditu azken krisiaren ondorioak errepikatu. Orduko krisi hartan, % 7,3 jaitsi zen I+Gko inbertsioa 2012tik 2015era, eta EB-27an, berriz, % 9,2 handitu zen. Horrek arrakala bat sortu zuen I+Gren inbertsioan BPGrekiko, eta susperraldian ez da arrakala hori murriztu; izan ere, Euskatzen datuen arabera, 2018an, Euskadik bere BPGren % 1,85aren baliokidea inbertitu zuen I+Gn, eta EB-27k, berriz, % 2,18. Bestalde, enpresa berritzaileen ehunekoa, Europako batezbestekoa ez bezala, jaitsi egin zen azken urteetan. 2014-2016 aldian, Euskadin % 44,1 izan ziren eta Europar Batasunean % 49,5. Hori guztia dela eta, Euskadik berrikuntzaren arloan Europako beste eskualdeekin alderatuta duen posizio konparatiboa okertu egin da.

Beharrezkoa da denok ahalegina egitea, Euskadi berriro EB-27ren mailan jartzeko. Berrikuntzarako garaia da. Etorkizuna dago jokoan.

Koronabirusaren pandemiak trantsizio sozio-ekonomikoak bizkortu ditu; hala nola digitalizazioa, eta trantsizio horiek eraldaketa sakonak ekarriko dituzte uste baino epe laburragoan.

Prozesu hori ekonomia suspertzeko faserako bidean gidatzeko oinarriak giltzarri izango dira epe labur eta, batez bere, epe luzerako gure etorkizuna zehazteko.

Beharrezkoa da denok ahalegina egitea, Euskadi berriro EB-27ren mailan jartzeko.

Aurkibidea



01

Zein da abiapuntua?

5. orrialdea



02

Zer ikasi dugu krisitik?

10. orrialdea



03

Nola hautematen dute
adituek Euskadiko
berrikuntzaren etorkizuna?

21. orrialdea

Zein da abiapuntua?

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren
Euskal Sistemak 2008tik 2018ra
izandako bilakaeraren azterketa

Europako Batzordeak *Regional Innovation Scoreboard* (aurrerantzean RIS) adierazle sintetikoa argitaratzen du aldizka. Adierazle horrek Europako eskualdeetako berrikuntzaren errendimendua alderatzeko balio du.

2019ko azken argitalpenaren arabera, Euskadiren bilakaera positiboa izan da. Hala ere, Europako gainerako eskualdeekin alderatuz gero, multzo osoaren hobekuntza Euskadirena baino handiagoa izan da. Beraz, bilakaera erlatiboa negatiboa izan

da, eta horren ondorioz, Euskadi, lehen aldiz “berrikuntza er-taineko eskualdeak” kategoriarajaitsi da.

Beherakada horren arrazoi en artean aipagarria da, batetik, enpresa berritzaileen ehunekoak izandako beherakada, handiagoa izan baitzen Euskadin Europako gainerako lekuetan baino. Bestetik, BPGrekiko I+G arloan egindako inbertsioaren jaitsiera, azken krisi ekonomikoak sorrarazia.


Euskadik berrikuntzaren arloko errendimendua hobetu zuen

Europako Batzordeak argitaratzen duen Regional Innovation Scoreboard (RIS)* adierazle sintetikoaren arabera, Euskadik handitu egin du berrikuntzako errendimendua azken urteetan.

i *RIS adierazle sintetiko bat da eta Europako eskualdeek berrikuntzan duten errendimendua ebaluatzen du 17 adierazleren arabera:

Euskadiren bilakaera RIS adierazlean

RIS, EB-28ren balioa 100 izanik 2011n (%)



Esparru-baldintzen adierazleak

- ① Hirugarren mailako hezkuntza duten 30-34 urteko gazteen %
- ② Etengabeko hezkuntzan parte hartzen duten 25-64 urteko herritarren %
- ③ Nazioarteko elkarlanean egindako argitalpen zientifikoaren kopurua milioi bat biztanleko
- ④ Nazioartean gehien aipatzen diren argitalpenen % 10etan dauden argitalpen zientifikoaren %

Inbertsioen adierazleak

- ⑤ Sektore publikoak gauzatutako I+Gko barne-gastua
- ⑥ Sektore pribatuak gauzatutako I+Gko barne-gastua

Berrikuntza jardueren adierazleak

- ⑦ ETE-ek I+G ez diren berrikuntza teknologikoko jardueretan egindako gastua negozio-zifrarekiko
- ⑧ Produktu eta prozesuan berritzaileak diren ETE-en %

- ⑨ Antolaketa edo marketinean berritzaileak diren ETE-en %
- ⑩ Barne-gaitasunekin berritzen duten ETE-en %
- ⑪ Elkarlanean berritzen duten ETE-en %
- ⑫ Elkarlanean egindako argitalpen publiko-pribatuak milioi bat biztanleko
- ⑬ PCT nazioarteko patenteen eskaera kopurua BPGren mila milioi bakoitzeko
- ⑭ EUIPOri eginiko marka komertzialen eskaera kopurua BPGren mila milioi bakoitzeko
- ⑮ EUIPOri eginiko industria-diseinuen eskaera kopurua BPGren mila milioi bakoitzeko

Eraginen adierazleak


- ⑯ Enpleguaren % maila teknologiko altu eta ertain-altuko manufaktura sektoreetan eta ezagutza maila intentsiboko zerbitzuetan
- ⑰ ETE-en produktu berrien salmenten % negozio-zifrarekiko

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2019.

Euskadi, “berrikuntza ertaineko eskualdea”

Berrikuntzako errendimenduaren hobekuntza Europako eskualdeen batezbestekoa baino txikiagoa izan zen, eta horregatik, Euskadi “berrikuntza ertaineko eskualdea” kategoriara jaitsi zen.

Europako eskualdeek RIS adierazlean duten posizioa



Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2019.

Beherakadaren arrazoiak

1. Berrikuntzaren beherakada ETE-etan


Enpresa berritzaileen ehunekoa Europako gainerako lekuetan baino gehiago jaitsi zen Euskadin.

2008ko finantza-krisiaren ondorioz, enpresa berritzaileen ehunekoa jaitsi egin zen, bai Euskadin, bai EB-27an. Ondoren, ehuneko horrek gora egin zuen Europa mailan, baina Euskadin ez.

Enpresetako berrikuntza-jarduera mota desberdinak neurtzeko, zenbait adierazle daude. RISek (17 adierazle osatutako adierazle sintetikoak), adibidez, lau erabiltzen ditu. Horiek guztiek ETE segmentuaren berrikuntza-maila neurtzen dute. Azken urteetan, Euskadiren posizioa adierazle guztietan okertu da Europako batezbestekoarekiko.

Enpresa berritzaileen ehunekoa

10 enplegu edo gehiagoko enpresa berritzaileak, industria-sektoreetakoak eta ezagutza maila intentsiboko zerbitzuetaoak



Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2019.

Euskadiren posizioa Europako eskualdeekin alderatuta, RIS 2012-2019 adierazlea aintzat hartuta

Produktu edo prozesuetan berritzaileak diren ETEak

Euskadi 190etik 79. postuan egotetik, 238tik 177. egotera igaro da.



Marketinean edo antolaketan berritzaileak diren ETEak

Euskadi 190etik 125. postuan egotetik, 238tik 170. egotera igaro da.




Barne-gaitasunekin berritzen duten ETEak

Euskadi 190etik 104. postuan egotetik, 238tik 170. egotera igaro da.



ETE-ek I+G ez diren berrikuntza teknologikoko jardueretan egindako gastua

Euskadi 190etik 158. postuan egotetik 238tik 199. egotera igaro da.




2. Krisiak gehiago eragin zion euskal I+Gri

Azken krisi ekonomikoak Euskadiren eta EB-27ren arteko arrakala sortu zuen I+Gn egindako inbertsioan BPGrekiko.

Krisiak intentsitate handiagoz eragin zion euskal I+Gri. 2008-2018 aldi osoan EB-27ak I+Gn egindako inbertsioaren etengabeko gorakadari eutsi zion bitartean, Euskadik murriztu egin zuen 2013tik 2015era. Horrek arrakala bat zabaldu zuen I+G inbertsioetan BPGrekiko, eta susperraldian ez da arrakala hori murriztu. Eustaten datuen arabera, 2018an, Euskadik bere BPGren % 1,85en baliokidea inbertitu zuen I+Gn; EB-27k eginiko ahalegina, berriz, % 2,18koa izan zen.

I+Gko inbertsioa BPGrekiko

I+Gko barne gastuaren ehunekoa BPGrekiko **Euskadin**, **EB-27n** eta **erreferentziatzko beste estatu batuetan**



Iturria: Eustat. Ikerketa- eta garapen-estatistika; Eustat. Kontu ekonomikoak; Eurostat. Statistics on research and development; OECD. Stat. Research and Development Statistics.

Zer ikasi dugu krisitik?

COVID-19aren krisiari aurre egiteko kontuan hartu beharreko ikasgaiak

2 008-2018 aldian Euskadin eta EB-27an I+Gn eta berrikuntzan izandako jardueren bilakaeraren azterketa konparatiboak aukera ematen du COVID-19ak ekarri duen krisitik ateratzeko neurriak zehazteko garaian aintzat hartu beharreko ikasgai batzuk eskuratzeko.

5 ikasgai:



01

Krisiek ez diote berrikuntzari mesederik egiten



02

Euskal enpresetako I+Gk finantzaketa publikoaren menderotasun handiagoa du



03

Austeritate-politikek inpaktu handiagoa dute Euskadin



04

Nazioartekotzea funtsezkoa da



05


Ahaleginen eta emaitzen arteko paradoxa

01 Krisiek ez diote berrikuntzari mesederik egiten

Krisialdiek ez dute enpresetan berrikuntza-jardueren gorakadarik ekartzen, edozein dela ere enpresen neurria; ez Euskadin, ezta Europan ere.

Berrikuntzaren bat txertatu zuten enpresen ehunekoaren bilakaera, neurriaren arabera

10 enplegu edo gehiagoko enpresa berritzaileak, industria-sektoreetakoak eta ezagutza maila intentsiboko zerbitzuetakoak, neurriaren arabera



Iturria: Eustat. Berrikuntzako Inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2010, 2012, 2014, 2016.

02 Euskal enpresetako I+Gk finantzaketa publikoaren mendekotasun handiagoa du

Euskal enpresetako I+G jarduera Europako enpresetakoa baino sentiberagoa da finantzaketa publikoaren aldakortasunarekiko, mendekotasun handiagoa eta neurri txikiagoa baititu.


2017an, euskal enpresen finantzaketaren % 13,5 funts publikoetatik etorri zen, eta Europan % 4,7. Horregatik, euskal enpresen I+G jarduera inbertsio publikoak izan litzakeen beherakaden aurrean

sentiberagoa da.

Horren arrazoietakoa bat da, Europan ez bezala, I+G jardueren gehiengoak enpresa txiki eta ertainek egiten dutela, eta horiek beti babes publiko handiagoa behar dutela.

Enpresen I+Gren finantzaketaren egitura



Enpresen I+G gastuaren egitura funtsen jatorriaren arabera, Euskadin eta EB27n



Iturria: Eustat. Ikerketa- eta garapen-estatistika; Eurostat. Statistics on research and development.

Enpresetako I+Gren egitura neurriaren arabera

Enpresen I+G gastuaren egitura enplegu-mailaren arabera, Euskadin eta EB27n




Iturria: Eustat. Ikerketa- eta garapen-estatistika; Eurostat. Statistics on research and development.

03 Austeritate-politikek inpaktu handiagoa dute Euskadin


Euskadin austeritate-politiken aplikazioak Europan baino eragin handiagoa du I+Gren enpresa-finantzaketan, elkarren arteko korrelazioa handiagoa baita.

Euskadin, finantzaketa publikoak trakzio-eragina du inbertsio pribatuan, Europan ez bezala. Beraz, lehiakortasuna galtzeko arriskua handiagoa dakarte.

Enpresen¹ eta administrazio publikoen finantzaketaren urtetik urterako aldakuntza Euskadin



Enpresen¹ eta administrazio publikoen finantzaketaren urtetik urterako aldakuntza EB-27n




¹Hor sartzen dira enpresa-izaerako Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde Pribatuak (IEAGEP).

04 Nazioartekotzea funtsezkoa da

Batetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema nazioartekotzea funtsezkoa da Euskadik posizio ona izateko, lankidetzaz berriak garatzeko eta I+Gren bikaintasun maila hobetzen lagunduko duen ezagutza eskuratzeko.


Nazioarteko elkarlanean egindako argitalpenak

Scopus-en indexatutako eta nazioarteko elkarlanean egindako argitalpen zientifikoak milioi bat biztanleko



Gehien aipatutako top-% 10 argitalpen zientifikoak

Scopus-en indexatutako eta gehien aipatutako % 10aren artean kokatzen diren eta argitalpen zientifikoaren ehunekoa




Iturria: Ikerbasque, Eustat, Europako Batzordea. 2020ko EIS adierazleen multzoa.

Bestetik beste finantzaketa-iturri batzuek izan ditzaketen beherakaden eragina muga dezakeen finantzaketa-iturria da.

Nazioarteko finantzaketaren pisua

Atzerritik etorritako I+Gko barne-gastuaren finantzaketaren ehunekoa



I+Gren finantzaketaren bilakaera

I+Gko barne-gastuaren urteko urterako aldakuntza Euskadin, funtsen jatorriaren arabera

Administraciones Públicas

24,3

3,0

Empresas


10,1

3,5

Extranjero

20,2

11,7




Iturria: Eustat. Ikerketa- eta garapen-estatistika; Eurostat. Statistics on research and development.

05 Ahaleginen eta emaitzen arteko paradoxa

Azken krisi ekonomikoak arrakala bat sortu zuen I+Gko inbertsioan BPGrekiko, UE-27rekin alderatuta.

I+Gko inbertsioa BPGrekiko


I+Gko barne-gastuaren ehunekoa BPGrekiko **Euskadin**, **EB-27n** eta **erreferentziazko beste estatu batuetan**



Iturria: Eustat. Ikerketa- eta garapen-estatistika; Eustat. Kontu ekonomikoak; Eurostat. Statistics on research and development; ELGA. Stat. Research and Development Statistics.

Produktu berriak saltzetik etorritako diru-sarrerak

Produktu berrien salmentaren ehunekoa negozio-zifrarekiko **Euskadin** eta **UE-27n**




Iturria: Eustat. Berrikuntzari buruzko inkesta; Europako Batzordea. 2020ko EIS adierazlearen multzoa.

Hala ere, euskal enpresek berrikuntzari lotutako emaitzak Europakoek baino gehiago hobetzea lortu zuten.

Euskal esportazioak maila teknologikoaren arabera


Manufaktura-industriaren esportazio gordinak maila teknologikoaren arabera Euskadin




Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzako estatistikak (ECOMEX).

Aldi horretan bertan, euskal jarduera zientifikoak artikulu kopurua eta bikaintasun maila areagotzea lortu zuen.

Scopusen indexatutako argitalpen zientifikoaren kopurua




Scopusen indexatutako argitalpen zientifikoaren ehunekoa munduko kopuru osoarekin alderatuta



Gehien aipatutako top-% 10 argitalpen zientifikoak

Scopus-en indexatutako eta gehien aipatutako % 10aren artean kokatzen diren eta argitalpen zientifikoaren ehunekoa



Paradoxa honen arrazoia, hipotetikoki, honako hauetakoren bat edo batzuk izan daite(z)ke:

A**I Berrikuntzaren arloan, bi abiaduratako enpresa-ehuna dago.**

Enpresa batzuek berrikuntzaren aldeko apustu sendoa egiten jarraitzen dute, berritzen hazten ari dira, eta produktu berrien eta esportazioen estatistiketan buru dira. Bestalde, beste enpresa batzuek jaitsarazi egiten dituzte I+Gko inbertsioen eta enpresa berritzaileen ehunekoaren estatistikak.

B**I Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema eraginkorragoa da orain.**

Jarduera berritzaileen eraginkortasuna, adibidez, I+Grena, hobetu egin da; hau da, gero eta gaitasun handiagoa dago egindako ahaleginari emaitza hobek ateratzeko. Horren arrazoiak izan litezke iraganean egindako ahaleginei buruz ikasi izana eta inbertsioen lehentasunak hobeto ezarri izana baliabideen eskasia zen testuinguruan.

C**I Denbora-tarte bat dago ahaleginak garatzearen eta emaitzak lortzearen artean. Beraz, azken urteetan Euskadik I+Gko inbertsioetan izandako beherakada bere lehiakortasunean posizionamendua okertzearen bezpera izan daiteke, COVID-19aren eragina alde batean utzita.**

I+Gko eta berrikuntzako emaitzen hobekuntza iraganeko ahalegin handiagoengatik izan daiteke, inbertsioen eta eskuratutako emaitzen denbora-tartea dela eta. Esaterako, denbora-tarte hori 5 edo 10 urtekoa izan daiteke I+Gn. Horregatik, azken urteetan I+Gko gastuan Euskadik EB-27rekiko izan duen okertzea bere etorkizuneko lehiakortasun-posizionamenduarentzako arrisku bat izan daiteke.

Nola hautematen dute adituek Euskadiko berrikuntzaren etorkizuna?

Innobasqueko aditu-taldearen
etorkizunerako aurreikuspena

Basque Innovation Perception (BIP) bi urtean behin egiten den azterlan bat da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako 250 profesional inguruk Euskadin berrikuntzak orain duen eta etorkizunean izango duen egoerari buruz duten pertzepzioa jasotzen du. Innobasqueko adituen talde hori bazkide diren erakundeen ekarpenari esker dago eratuta. Azterketa kualitatibo bat da eta


aurreko analisi estatistikoak osatzea du helburu.

BIP azterlanaren hirugarren edizio hau bikoiztuta egin da COVID-19aren etorreragatik: martxoan lehen inkesta egin zen eta irailean etorkizunerako aurreikuspenei buruzko atala eguneratu zen. Hemen erakutsiko ditugu horren emaitzak.

Inbertsioa I+Gn eta berrikuntzan

Datozen urteetan zer bilakaera izango duela uste duzu I+G+b-ko inbertsio osoak Euskadin?

I+G+b-ko inbertsioa murriztu egingo da 2020an, baina handitu egingo da 2021ean eta, bereziki, 2022an. Zehazki, 2020an jarduera jaitsi egingo dela uste dutenen artetik gehiengoak uste du jaitsiera % 0 eta % 3 artekoa izango dela.




Iturria: Innobasque. Basque Innovation Perception.

I+Gren eta berrikuntzaren lehentasuna eta eragina

■ Zein izango da, zure ustez, euskal enpresen epe laburrerako estrategian I+Gk eta berrikuntzak izango duten lehentasun maila, osasun-krisiaren aurreko egoerarekin alderatuta?

Gehienek (% 42,4) uste dute berrikuntzak lehentasun handiagoa izango duela enpresentzat. Hala ere, % 43,2k uste dute lehiakortasun-egoerari eusten bakarrik lagunduko duela.

Lehentasun mailaren bilakaera (%)




■ Euskadin abian den I+G eta berrikuntzako jardueraren emaitza gisa, krisialdi honetatik ateratzean, zer egoeratan egongo dira euskal enpresak haien lehiakideekiko?


■ Euskadin abian den I+G eta berrikuntzako jardueraren emaitza gisa, krisialdi honetatik ateratzean, zer egoeratan egongo da osasun-sistema?

Adituen % 51,9k uste dute Euskadin abian den I+G+b jarduerari esker, euskal osasun-sistema indartuta aterako dela krisi honetatik.

Lehiakortasunaren egoera krisiaren ondoren (%)




Krisiaren ondorengo egoera (%)



Zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal politika publikoaren lehentasunak

Zientzia, teknologia eta berrikuntza babesteko euskal politika publikoan zeri eman behar litzaioke lehentasuna datozen urteetan?

Adituen iritziz, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloko politikan lehentasuna ekimen estratergiakoak sustatzeari (% 47,3), enpresen eta gizartearen digitalizazioari (% 43,6) eta ETE-etako berrikuntzari eman behar litzaieke (% 43,2).



Iturria: Innobasque. Basque Innovation Perception.



innobasque

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación